



GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAK 2023KO URRIAREN 3AN EGINDAKO BATZARREKO AKTA

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren egoitzan (Gaztelako Atea 15, Gasteizen), 2023ko urriaren 3an, 12:00etan, hasi da Kontseilu Errektorearen batzarra, eta ondorengo pertsonak bildu dira:

- Jose Antonio Rodríguez Ranz jauna, Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetz sailburua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako (aurrerantzean, eLankidetz) eta Agentziaren Kontseilu Errektoreko lehendakari Nerea Melgosa Vega andrearen ordez. Modu telematikoan hartu du parte.
- Kontseilukidea: Mikel Hidalgo Bordegarai jauna, Gizarte-berrikuntzako aholkularia. Batzarrean bertan egon da.
- Kontseilukidea: Fernando Iturriaga jauna, Programa eta Azterketen aholkularia, Ekonomia eta Ogasun Sailaren ordezkari. Modu telematikoan hartu du parte.
- Kontseilukidea: Jone Fernández Landa andrea, Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako eta Europar Politiketako zuzendaria. Batzarrean bertan egon da.
- Kontseilukidea: Josu Urrutia Beristain jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari. Batzarrean bertan egon da.
- Kontseilukidea: Martin Iriberrri jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari. Batzarrean bertan egon da.
- Kontseilukidea: Elsa Fuente Do-Rosario andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari. Batzarrean bertan egon da.
- Idazkaria: Paul Ortega Etcheverry jauna, eLankidetzako zuzendaria. Batzarrean bertan egon da.

Halaber, gai-zerrendan jasota zeuden gaiak aurkezterakoan laguntza teknikoa emateko helburuz, gonbidatu gisa parte hartu dute eLankidetzako Koordinazio Teknikoaren arduradun Alazne Camiña andreak; eLankidetzako Koordinazio Estrategikoaren arduradun Noemi De la Fuente andreak eta eLankidetzako Administrazio eta Zerbitzuetako teknikari Amaia Etxebarri andreak.

Sarrera

Jose Antonio Rodríguez Ranz jaunak hartu du hitza, batzarrera etorri direnei ongietorria emateko eta, horrenbestez, batzarra hasi du; hauxe izan da gai-zerrenda:

1. *2023ko uztailaren 17an egindako batzarreko akta irakurtzea eta, hala badagokio, onestea.*
2. *2024ko aurrekontuen aurreproiektu-proposamena onestea.*
3. *2022ko Memoria onestea.*
4. *2023ko zuzeneko dirulaguntzetarako proposamenak onestea.*
5. *Ekintza humanitarioetarako 2023ko laguntzei buruzko informazioa.*
6. *Garapenerako lankidetzako beken 2023ko esleipendunei buruzko informazioa.*
7. *Galde-eskeak*

1. Aurreko batzarreko akta irakurtzea eta onartzea.

Batzarrean parte hartu dutenek ez dutenez batere oharpenik egin, onetsi egin da 2023ko uztailaren 17ko batzarreko akta, guztien aldeko botoarekin.

2. 2024ko aurrekontuen aurreproiektu-proposamena onestea.

Lehenik eta behin, Jose Antonio Rodríguez Ranzek azaldu du aurrekontua 5.000.000 eurotan hazi dela onetsitako aurrekontuarekiko, 4.000.000 euro eLankidetzak 2023ko ekitaldirako esku artean duen azken aurrekontuarekiko, Diruzaintzako Soberakinen kontura egon den milioi bat euroko igoeraren ondoren.

Jarraian, azaldu du aurten lehen aldiz “Langileei dagozkien gastuak” deritzon I. kapitulua Aurrekontuen Zuzendaritzak kalkulatu duela, eta Paul Ortegarri eman dio hitza, aurrekontua blokeka eta xehetasun handiagoz azaltzen jarrai dezan; ondorengo proiektuetara bideratutako bost dirulaguntza nominatibo berriak nabarmendu ditu Ortégak: “Guatemalako Antropologia Forentseko Fundazioa (FAFG)”, “TECNALIA Research & Innovation Fundazioa”, “Gosearen Aurkako Ekintza /Acción contra el Hambre ACH”, “Media Luna Roja Saharai” eta “Garapenerako elkarte” (Munduko Landagunea ML).

Ortegak bere azalpena egin ondoren, Elsa Fuentek eta Jone Fernándezek aurrekontuari buruzko azalpenaren eta konpromisoen eta ordainketen kudeaketaren inguruko hainbat zalantza planteatu dute. Halaber, Josu Urrutiak galdetu du nola gehitu den aurrekontua partidaz partida; ezin da kalkulu hori egin, aurrekontua berriki prestatu baita. Horri buruz, amaierako bi milioi euroko hazkundera 2024ko laguntzei aplikatu zaiela adierazi da; urtarrilean aurkeztuko da hazkundera hori, eta kopuru hori ez da bideratuko langileen kapitalera, gastuetara eta dirulaguntza nominatiboetara.

Martin Iriberrik adierazi du hazkundera hori albiste ona dela Euskal Lankidetzarako eta Lankidetzari eta Elkartasunari buruzko Euskal Legearen proiektuaren prozesurako.

Jone Fernándezek aretotik irten beharra izan du une batez eta, horrenbestez, hura itzuli arte itxoin dute aurrekontua onesteko.

3. 2022ko Memoria onestea

Jarraian, 2022ko Memoriaren edizioa ahalik eta didaktikoena izan dadin ahalegin handia egin dela azpimarratu du sailburuordeak, eta azaldu du datu eta informazio gehiago eskuratzeko aukera ematen duela. Ondoren, Paul Ortegarik eman dio hitza, hark punturik garrantzitsuenak azal ditzan.

Behin azalpena amaitu duenean, berriro hartu du hitza Jose Antonio Rodríguezek; zorionak eta eskerrak eman dizkio memoria idazteaz arduratu den lantaldeari, eta bertsiotik telematikoa nabarmendu du.

Batzarreko kide guztiak aretoan zeudenean, gai-zerrendako 2. puntua bozkatu dute, eta gehiengoz onartu da aurrekontua, aldeko 6 botorekin eta 2 abstentziorekin (Josu Urrutia eta Martin Iriberrik).

Martin Iriberrik eskerrak eman dizkio lantaldeari egin duen lanagatik, eta zergatik abstenitu den azaldu du; hasiera batean, aurrekontua onartzearen aurka bozkatzeko asmoa zuen arren, aurrekontua aurreratuta dagoela ikusita, abstenitzea erabaki duela azaldu du Iriberrik.

2022ko Memoriari dagokionez, “2022. urtearen laburpena” orriari buruz, Josu Urrutiak adierazi du bi zalantza dituela lagundutako pertsona kopuruari dagokionez; Noemi De la

Fuentek eta Alazne Camiñak argitu dute gutxi gorabeherako zifra dela eta barematzerakoan baloratzen den puntua dela, baina ez dela puntuatzen den irizpide bat.

Josu Urrutiak eskerrak eman dizkie informazioagatik, eta iradoki du eremu geografikoen arteko alderaketak egitea; Noemik adierazi du kontuan hartuko dutela.

Jarraian, Josu Urrutiak, Elsa Fuentek eta Mikel Hldalgok hartu dute hitza eta proiektu berak hainbat GJH dauzkanean informazioa azaltzeko moduz aritu dira.

Amaitzeko, bozketa egin dute, eta aho batez onetsi dute memoria.

4. 2023ko zuzeneko dirulaguntzetarako proposamenak onestea.

Jose Antonio Rodriguezek zuzeneko dirulaguntzetarako lau ekimen berri onartzea proposatu du: lehenengoa, Ghanan garatuko dena ANESVAD erakundearen eskutik; ekintzailletza soziala sustatzeko helburua du, arretarik jasotzen ez duten gaixotasun tropikalen aurka borrokatzen lagun dezan. Bigarrena, berriz, Burkina Fason garatuko da, Oxfam Intermon Fundazioarekin, eta haren helburua da genero-inpaktua eta genero-ikuspegia duten enpresak sortzen eta enpresa horiek modu jasangarrian hazten lagunduko duen ekosistema bat garatzea. PHARE TERRITORIOS GLOBALES elkarearena da hirugarren ekimena, eta Kolonbian bakearen aldeko eta indarkeriaren aurkako hiri-agenda bat diseinatzea proposatzen du. Azkenik, BIZKAIKO MEDICUS MUNDI erakundearen ekimena dago, Hondurasen emakumeen eta LGTBIQ+ kolektiboko pertsonen osasun mentalari arreta integrala emateko helburuz, laguntza teknikoa eta antolakuntzako emateko.

Paul Ortegak xehetasun handiagoz azaldu ditu proposamen horiek eta, besterik gabe, aho batez onartu dira.

5. Ekintza humanitarioetarako 2023ko laguntzei buruzko informazioa

Alazne Camiñak azaldu du ekintza humanitarioetako estrategiei laguntzak emateko deialdia. Guztira, 12 eskabide aurkeztu ziren deialdi horretan, eta horietako bostek jasoko dute dirulaguntza; beste biri ukatu egin zaie dirulaguntza, funtsak agortu direlako, beste bik atzera egin dute, eta hiru baztertu egin dira. Laguntza horiekin, ondorengo herrialdeetako krisi humanitarioei emango zaie arreta: Palestina, Burundi, Kongoko

Errepublika Demokratikoa, Sudaneko Hegoaldea eta Somalia. Horrela, 3.916.057,87 euro esleitu dira, eta 83.942,13 euroko soberakina geratzen da; kopuru horretatik, PRE laguntzetarako hasierako zuzkidura handitzeko erabiliko da 2023ko lehenengo ordainketaren baliokide den kopurua.

Alazne Camiñak balorazio-batzordeak irailaren 21ean egin zuen bigarren saioaren ondoren ekintza humanitarioetako proiektuetarako onartutako laguntzak aurkezten jarraitu du; ondorengo krisietan laguntzeko sei eskabidetara bideratuko dira dirulaguntzak, 1.199.997,54 euroko kopuruarekin: palestinar herria (Palestina), saharaiar herria (RASD), Tigrayko gatazka (Etiopia), Sudaneko Hegoaldeko gatazka, Kongoko Errepublika Demokratikoko gatazka eta Ertamerikako migrazio-korridorea (Honduras).

Balorazio-batzordearen azkeneko saioan –hirugarrena izango da– beste lau proiektutara bideratuko dira laguntzak funtsak agortu arte; Kontseilu Errektorearen hurrengo batzarrean emango da dirulaguntza horien berri.

Azalpen horiek amaitu ondoren, Elsa Fuentek galdetu du PRO deialditik PRE deialdira zuzkidura pasatu ahal daitekeen. Alazne Camiñak erantzun dio PRO laguntzen zuzkidura agortu egingo dela eta, beraz, ez dela soberakinik geldituko, eta Noemi De la Fuentek gaineratu du ezin dela PROtik PRErako traspaso automatikorik egin, beharrezkoa izango litzatekeela Kontseilu Errektorearen onespena.

6. Garapenerako lankidetzako beken 2023ko esleipendunei buruzko informazioa.

Jose Antonio Rodríguezek garapenerako lankidetzako 2023ko bekak aurkeztu ditu, eta adierazi du ekintza humanitarioko, generoaren arloko, giza eskubideetako eta eraldaketarako hezkuntzako ikaskuntza- eta espezializazio-tresnak direla; ondoren, Alazne Camiñari eman dio hitza, horri buruzko informazio zabalagoa eman dezan.

eLankidetzako Koordinazio Teknikoaren arduraduna pozik azaldu da aurkeztutako 34 hautagaitzetatik (30 emakume eta 4 gizon) lau beka eman dituztelako; izan ere,

COVIDaren eta COVID ondorengo egoeraren ondorioz, 2019az geroztik ezin izan da orain arte beste deialdirik egin.

Jarraitzeko, jakinarazi du 12 lagunek baino ez dutela 50 puntu baino gehiago lortu, eta nabarmendu du bi lagunek egin dutela atzera, baina arrazoi positiboengatik, lanean ari zirelako edo bestelako proiektu pertsonalak zituztelako. Azkenik, gogorarazi du 2023ko irailaren 15etik 2024ko irailaren 14ra artekoa izango dela beken iraupena.

7. Galde-eskeak

Elsa Fuentes galdetu du zer aurreikuspen dagen Nazio Batuen beken inguruan, eta Paul Ortegak erantzun dio Lege berria onartu arte ezin izango dela tresna horren berrikuspena amaitu.

Amaitzeko, Paul Ortegak gogorarazi du urriaren 23an egingo dela Kontseilu Errektorearen hurrengo batzarra.

Beste gairik planteatu ez denez, Jose Antonio Rodríguez eskerrak eman dizkie bertaratu direnei, eta batzarra amaitutzat jo du, 13:50ean. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 18.2 artikulua lehengo paragrafoan aurreikusten dena betez, jasota gelditzen da Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorearen hurrengo batzarrean onetsiko dela akta.

Jose Antonio Rodríguez Ranz jaunaren
oniritziarekin
Giza Eskubide, Memoria eta
Lankidetzako sailburuordea

Paul Ortega Etcheverry
Garapenerako Lankidetzaren Euskal
Agentziaren Kontseilu Errektoreko
idazkaria